

Adei Enparantza Agirre

E maila • 2 aipamena

Adei Enparantza naiz, 10 urte ditut, eta 5. maila ikasten ari nazi Beasaingo Alkartasuna Lizeoan. Nire zaletasunak euskal dantzak eta atletismoa dira. Aurten, eskolan bertsolaritza ikasten hasi gara, horregatik bertso hau egitera ausartu nintzen, eta aipamena lortu dut. Ea gustokoa duzuen.



Doinua: Pello Joxepe

AMA, NON DA ELURRA?

Olentzero da bapo etorri
Gabon gauean gurera
ekarri dizkit elurretako
eskularru eta lera
jaitsiko ditut ziztu bizian
aldapak goitikan behera.
Esan amatxo noiz helduko den
elur txuria kalera.

Ene semetxo nahasturik dabil
aurtengo hontan negua
klima aldatuz doala eta
elur gabe ingurua
natura zaindu beharra dago
erabiliaz burua
axola gabe segi ez gero
akabo gure mundua.